

## HELDUEN LITERATURA

## Klik, argazkia

## BAINA EZ LUKETE HAN EGON BEHAR

Autorea: Asier Osinalde Vidal.

Argitaletxea: Erein.

Orri kopurua: 155.

Salneurria: 15 euro.

Iratxe ESPARZA

Interesgarria da zinez Asier Osinaldek argitaratutako lehenengo lana, izenburutik hasita azken punturaino, nahiz eta irakurle honek pentsatu pertsonaiek momentu zehatz horretan han egon beharko luketela. Bada, protagonista bakoitzaren istorioa deskubritu ahala, irakurleak ipuin-liburuaren azalean hutsik dauden hamaika markoei argazkiak jar diezazkieke:

Lehenengoan, Albert Zimmermann eta Giuliano Marionetti geneuzkake; elkar ezagutzen ez duten bi gazteek amets galduen etsipena daramate begiradan eta kontakizunen zikloa irekitzen dute. Hurrengo argazkian Oscar Exposito izena omen duen mutila legoke, Euskal Herrira heldu berria den argentinarraren torturatua; Idoia eta Wolfangen irudia hirugarrenean ikus genezake, zeintzuei gaixotasunak

etorkizun oparoa ukatzen dien. Klaus eta Anna beste batean leudeke, adinak eta bizirik sentitzeko atxikimenduak dakartzaten jakinduriaren eta pazientziaren erakusle. Angel Mari Hernandez beste baten bizitzaren lapurra da eta haren argazkia Johann Schollenaren ondoan jarriko luke patuak, atzean geratu den arrakastaren goxotasuna berriro ere dastatu nahi duen gizon desesperatua. Martin Irizarrek Austertan eleberri batetik berreskuratutako protagonista obsesiboa ematen du eta bere nortasunaren esentziaren bila dabilela, harena Mari Carmenen argazkiaren gainean legoke, familiatik ihes egiteko nahian neke eginda agertuko litzaigukeen emakumea. Juan Marik, ordea, jubilatua-zen zimurra ditu eta, monotoniaren zama bizkarrean, ordenagailuaren aurrean eserita egongo litzateke. Mariorena azken-aurreko argazkia genduke, bizikletaz aldapan gora doana, aitaren usadioak atzean utzi nahi dituelako; eta, azkenik, Giulia menderakaitza irudikatu ahalko litzaike.

Ezuste atsegina izan da erreparatzea ipuinak zein konturekin dauden eraikita eta zein indar duten irakurlearen arreta osoa bereganatzeko. Hasiera batean inol-



ko loturarik gabeko narrazioak diruditen arren, "Ez zara oraindik eroriko" hirugarren ipuin zoragarritik aurrera hariak lotzen has gaitezke; izan ere, autonomoak izango balira bezala aurkezten dira, baina nago ipuinek oso baten parte direla hartzekotan esanahian irabazten dutela. Horregatik, Osinaldek proposamen erakar-

garria sortu duela iruditzen zait, irakurketak bi aukera eskaintzen dituelako, eta bigarrenaren alde eginez gero -loturak sumatu, gaiak gurutzatu, pertsonaiek identifikatu- irakurleak modu ezberdinetan jasoko ditu istorioak. Are gehiago, protagonistekiko pertzepzioa eta sentsibilitatea ere itxuraldatuko dira sarritan haien erabakiak ulergarriago bihurtuz. Badaude, beraz, pertsonaiek eta arazoak elkartzen direnak, baina denbora-espazio kate saihestezinak indarra irabazten du narrazio guztion lokarria izanik.

Orduan, esanak esan, ipuinek ziklo bat osatzen dutela pentsatzen dut. *Short story cycle*; izan ere, irakurraldian kontakizunen konbinaketa ezberdinak egiteak ez du eraginik osoak sorrarazten duen elkarrekiko erlazioan eta esanahian, lehenbailehen oharitzen baikara lotura berezi bat dagoela ipuinen artean. Testuak irakurle aktibo bihurtzen gaitu, nire ustez gozamen eta zorroztasuna areagotzen dituen ezinbesteko ezaugarria; gainera, ipuinetan meheki harilkatuta dauden detaileak gure eskuetan ditugu, ez dezagun gal istorio bakar bat osatzeko daukagun aukera. Alabaina, badaude bi ipuin esangura berezia daukatenak eta mugiezinak direnak: lehenengoa, "Two typical irish guys in a tavern", eta azkena, "Lehendik elkar ezagutuko balute bezala"; bata ipuinen zikloa irekitzen du eta besteak itxi; beraz, biak erabakigarriak eta berebizikoak liburuaren zentzu osoa baieztatzen. Dena den, zeu zara, irakurle, argazkilaria.

## HAUR LITERATURA

## Zer izan nahi duzu?

## JONEK JONE IZAN NAHI DU

Autorea: Dani Martirena.

Irudiak: Ana Ibañez.

Argitaletxea: Liburu Iletsuak.

Orri kopurua: 32.

Salneurria: 15 euro.

Lore AGIRREZABAL

Umetan zenbat aldiz entzun zenuen handitan zer izan nahi zenuen? Maiz sortzen da jakin-minez betetako galdera hori, erantzun jostariz eta ameslariz betetzen den itaun hori. Izan ere, txikitik nork ez du amestu handitan astronauta izatearekin? Edo hegazkin-pilotu, edo sukaldari, edo ile-apaintzaile, dentista, mediku, albatari, zapatari... Liburu honetako protagonistak ere amets egiten du eta etorkizunean hainbat gauza izan nahi du.

Sarri, etorkizunari begira jarri eta ahaztu egiten dugu oraina. Inoiz galdetu al dizute zer izan nahi duzun orain? Nik ez nuke bat-bateko erantzunik izango, baina Jonek argi du: Jonek Jone izan nahi du. Besterik ez, eta hori guztia.

Izan ere, nork ez du norbera izan nahi? Ez al da hori, bizitzan aurrera egin ahala, geure baitan gero eta indar handiagoa

hartzen duen gogo? Bada, Jonek ere hori du amets; Jone izatea, eta, noski, jolas egitea, belar bustiaren gainean ibiltzea... Ume guztiek bezala.

Handitan gauza handiak egitearekin amestu ohi da txikitik, baina benetan hazten eta heltzen diren pertsonak ttipitasunaren garrantziaz ohartzen direnak dira. Liburu hau ere txikia da bere neurrian, baina zabaldu orduko hazi egiten da; bai fisikoki -akordeoi bat bezala za-

baltzen delako-, bai kontaktzen denaren garrantziari dagokionez ere.

Oraindik, tamalez, gutxi dira transexualitatearen gaia jorratzen duten liburuak, are gutxiago euskarazkoak eta haurrei zuzendutakoak. Horregatik da hain handia album ilustratu ttipi hau.

Asun Agiriano haur-literatura adituak hitz-atzean dioen bezala, «sarerik gabe, ausart eta ondo bilduta dator liburu ilustratu ezkutua, egileek bikain zaindua». Izan ere, sekulakoa izan da gaiari argia emateko egin duten ahalegina. Dani Martirena idazleak errimaren hari finez josi ditu Joneren ametsak, geure baitarako nahiz ozen irakurtzeko musika ederrak sortuz. Ane Ibañez ilustratzaileak, berriz, collage teknikaren bidez kartoizko kutxe-

tan irudikatu ditu pentsamendu horiek. Horretarako, indioilar txuleten erretiluentzat erabilitako kaxez baliatu da. Bertan muntatu ditu irudiak, eta, ondoren, bakoitzari argazkia atereaz digitalizatu ditu libururako. Horrela, orriak pasatuz, kutxak zabalduz eta itxiz, protagonistaren nortasuna erpin guztietatik ezagutzeko bide-orria sortu dute Martirenak eta Ibañezek.

Horrekin guztiarekin nahikoa ez, eta autoedizioa aukeratu dute beste behin ere. 2015ean "Hankaz gora du amak mundua" argitalpenarekin egin bezala, Liburu Iletsuak zigilupean kaleratu dute "Jonek Jone izan nahi du".

Zinez, Gabonetarako opari ederra izan daiteke, baina nekez aurkituko duzu saltegi handietan, ez baita liburu «komertziala» edo «salgarria». Hala adierazi zuen Dani Martirena egileak irrati-elkarriketa batean, autoedizioaren zergatia azaltzean; hainbat argitaletxetara jo omen zuten aurretik, baina ez zen inor ausartu horrelako liburu argitaratzera, ez baita erraza ezarritako moldeen aurka jokatzea.

Liburu hau, ordea, moldeak hautsiz eta hausteko sortu da. Etxeko txikiekin batera gure nortasunaz hausnartzeko eta transexualitateaz naturaltasun osoarekin solas egiteko aukera ezin hobea eskaintzen du.

Finean, arrazoi izango dute argitaletxe eta makro-dendek; hau ez da liburu komertziala, ez da modakoa, ezta azalekoa ere. Mami handiko liburu da, etxe, eskola eta liburutegi guztietan egon beharko lukeena luzaroan. Bilatuz gero, aurkituko duzu.

